

# Hirugarrenaz lau lerro

Nikaragua, El Salvador... eta Guatemala ez ala?

Gutxiago ezagutzen bide da Guatemala-ren kasoa Euskal Herrian. Eta hiruetan indioena Guatemala izanik, berriro ere harrizten nau.

Joan den Urtarrilaren 19an, halere, eta beste ekintza armatu askoren artean, hiru irriati okupatu zituen EGP delakoak (Ejército Guerrillero de los Pobres): Radio Panamericana. Radio TicTac, eta Radio Progreso. Eta hiruetatik batera, eta organizazioaren urtemuga ospatzeko, askatasunaren aldeko Agiri bat irakurri zuen.

Tentsioa ikaragarria da (orain dela gutxioko neurte artikuluan esaten nuen). Aste honetako "Washington Post"-ean irakurtzen dudanez, hilabetean 500en bat lagun hiltzen dira inkontinentean. Eta hau erasten du: "Giza-eskubideez arduratzen direnek uste dutenez, zifra horiek urri gelditzen dira".

Borroka, beraz, gaitza; aldame-neko bi errepubliketan bezala. (Sandinistek agintea lortu badute, beste biek ez oraino).

Baina hona hemen datu batzu ondoko kuadroan.

Laborantzaz ezin bizi ("Los trabajadores trabajan en la agricultura con salarios de miseria", dio Jorge Arias-ek); eta nekazariek kalera jotzen dute, aldraka: "el éxodo del campo a la ciudad es enorme".

Hala ere, jendetzaren % 75 josten zen nekazaritzan orain dela urte batzu. Eta "rural" horren artean, bi heren "indigena" (alegia, indio). Kalera jetsi eta josten ari den jendeketa kontutan hartuz, Guatemalako herria gehienez indioa dela esan behar da.

Maya-quiché multzokoak; eta hortaz, Mexico-ko Yucatan-en bizi diren "maya", famatuena ezpalekoak. Nahiz, gaur erabat desberdinduta eta nabartuta bizi.

\* \* \*

Hona hemen datu batzu, zaharkiturik badaude ere (Jorge Arias, 1962):

Indioen kopurura 1.497.261 bizt. (% 53,6; 1962).

| Hizkuntza nagusiak: | hiztanle |
|---------------------|----------|
| Quiché .....        | 339.232  |
| Cakchiquel .....    | 167.363  |
| Mam .....           | 178.308  |
| Kekchí .....        | 153.961  |

(Orduan, jakina = 1962 (Baita beste 12 hizkuntza ahul) Dirudienaz indioen proportzioa txikitua dago estatistika horretan. Hona hemen Nazio-Artxibategiko

Zuzendaria den Arturo Valdés Oliva-k dioena: "La gran mayoría de los habitantes hablan las lenguas indígenas de la familia Maya-Quiché... las tres cuartas partes con toda seguridad".

Hori bakarrik ez: quiché delakoa bihurtu bide da merkatalgo eta harremanetarako mintzabidea; eta ama-hizkuntzat quichez ez dakiten askok, erabili egin dezakete; "Se puede comprobar reiteradamente, que el idioma Quiché es, entre la variedad de lenguas indígenas, el que más se utiliza en los principales mercados y centros comerciales del país" (Lenguas Indígenas de Guatemala, 1965). Eta kopuruei buruz mintzo delarik, hau dio: "Conforme a las estimaciones hechas, no menos de 600.000 hablan la lengua quiché" (ib. 22)

Eta ketxuei buruz bezalatsu, oraindik ere pilo batek españolez ez daki: "Están dentro del monolingüismo el 78 por ciento de esos habitantes". Gainerakoan artean, "Ladinoak" dira parte bat; baina beste bat beste hizkuntza indio bat, cakchikelez bereziki dakitenak.

Horra hor, beraz, behin eta berri izkutatzen zaigun nazio-arazoa. Guatemala amerikarra da jatorriz, eta ez da Europartu. Joan den astean ikusi nuen filme ederretan garbi ageri zen hau: kaletik urrundu bezain laister, jakzeren koloretuak eta aurpegiak itxurak herri desberdin eta zapaldu batetara garamatzate.

Esan beharrik ez dago. Eta Muga-koen barkazioarekin, dislojazioa dela-eta, eta maya-quiché mul-

tzoko hizkera horiek ez baitute bizi-erata ekonomiko eta politikoan ezertarako balio, baztertu egiten dira: "la castellanización representa para él (indio), no solamente un medio de movilidad ascendente, sino también un instrumento de defensa en sus relaciones cotidianas con los ladinos (Rodolfo Stavenhagen; oso interesgarria den "Clases, Colonialismo y Aculturación" liburuan; Guatemala, 1968, 44.orr.).

\* \* \*

Ikus dezagun, ordea, zein den klase-banaketa Guatemala horretan.

Beste batzutan Bockler segitu badut, gaurkoan Stavenhagen izango dut gidari. Laburtzapean bat egin ez, eta egia saldu gabe, hau idatz dezakegu:

| Indioak          |         |
|------------------|---------|
| Hizkuntzaz ..... | Quiché  |
| Bizibidez .....  | Langile |
| Arrazaz .....    | Indio   |

| Ladinoak         |                     |
|------------------|---------------------|
| Hizkuntzaz ..... | Española            |
| Bizibidez .....  | Nagusi, kapitalista |
| Arrazaz .....    | Txarnegu (meztizo)  |

El ladino medio posee más de 8 veces más tierras que el indio medio (St., 25). Lehen ez zen hori gertatzen, jakina; lurrak ez ziren salkizun, komunitatekoak ziren. Baina Españako kolonialismoak kendu zizkien indarka, eta liberalismoak gero lapurreta legezatu. Eta orain (USA-n bezala) lurralde-rik agorrenak eta baliogabeenak

|                   | Hedadura    | Jendeketa      | Analfabetoak |
|-------------------|-------------|----------------|--------------|
| Guatemala .....   | 108.889 Km2 | 5.348.000 bizt | 68           |
| El Salvador ..... | 21.393      | 3.541.000      | 66           |
| Nikaragua .....   | 130.000     | 2.673.00065    |              |

(Analfabetismo horren banaketaz datu apur bat emango dugu aurrerago).



Tentsioa izugarria da Guatemalan; 500en bat lagun hiltzen dira inkontinentean



baizik ez zaie utzi bertako indioei. Bortxazko lana ere, 150 egun ez urtean, eramán izan ditu indioak ladinoen fagoretan lan egitera, "para luchar contra la tendencia a la osiosidad del indígena... Hau, jakina, langileok etxetik ateratu, eta hona eta hara ibiltari bihurtzen zirelarik...

Analfabestimoan, era berean, ez da berdinki gertatzen: nekazariak ikutzen ditu gehienik, jakina:

(1962)

Nekazarien artean .....

% 82,7

Kaletarren artean .....

% 41,7

Analfabetoak, hitz batez, indioak dira batez ere. Eta, noski: "Imperioa"ren garaian ezer ez zen egin indioak eskolatzeko; eta gero ere, 1.821-1.944 epean, ezer ez: "No se realizó en Guatemala ninguna actividad organizada, encaminada a contrarrestar el analfabetismo de los adultos" (Arias). Lehenengo alfabetakuntza-kanpaina 1945-an hasi zuen Arbenz-ek; eta denok dakigu nola ordaindu zioten hau "betiko demokratek"...

\* \* \*

Guatemalan, beraz, batzutan horrela ikusten ez bada ere, zeharo daude baturik indioen askatasuna eta klase-zapaltzaileen kontrako borrokan. Guatemalan ladinoak dira eskubia eta inperialismoa, klase-zapalketa eta "pieds-noirs"en agintea Guatemalan, horrela, abertzalea suna ezkerarra da, eta ezker (sozial-inperialista ez denean) abertzalea eta indioen aldekoa da.

Agintariek badakite, eta zanpa-

keta eta sarraskia gogortuz doaz egunetik egunera. Giza-eskubideen Legezaren iritziz, Romeo Lucas Garcia generala da "hemisferioko buruzagirik odoltsuena" (= the bloodiest leader ruling in the hemisphere"). Herri osoak sarraskitzen ari dira. Eta herri horiek, jakina, indioak dira; Guatemalako Ipar-Mendebaldeko menditartean.

Eta nazio-kolore hori ukatu ezina da. Benedicto Lucas Garcia (diktadorearen anaia) joan den Abenduan aitortu duenez Quiché eta Huehuetenango departamenduetan EGP delakoak "1.200 guda eta 20.000 nekazari "simpatizante" ditu"... Bete betean, beraz, Mam eta Quiché hizkuntzak mintzatzaren diruz eskualdeetan. Eta "The Nation" astearian irakurtzen dugun (1.981-XII-26; 694) "Indian continue to join the insurgent forces in large numbers... Many villages in Huehuetenango have joined the guerrillas"... Garbiago, ur garbia.

Ekintza non gertatzen diren begiratzen badagu, ondorio bera erako dugu. Joan den Urriaren 28an, esate baterako, unofirmeak eta guzti, EGP-ko gerrilleroek polizia eta kasernak eraso zituztenean, hiru herri hauetan egin zuten: Sozola, Mazatenango eta Escuintlan. Mapa begiratu besterik ez dago Guatemalako borroka nork darman berehala ulertzeko.

Ezker abertzaleak norekin kidetu behar lukeen garbi dago. Berriro ere, eta nahi diren desberdintasun guztiak kontutan hartuz jakina, euskaldunok ez gara Aralar-ko azken ormitorinkoak.

TXILLARDEGI (Los Angeles, USA)

## NEKAZARITZA-EL CAMPO Monográfico de EGIN

- Cultivo en invernación
- Claves en el porvenir agropecuario de Navarra
- La patata mecánica
- Sindicatos agrarios

- La república independiente de Landarbaso
- Autoabastecimiento energético del caserío vasco
- El trabajo hecho deporte

Pídalo con su ejemplar de EGIN el domingo día 21.

Es gratis.